BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

# ALDIZKARI OFIZIALA

# BOLETIN OFICIAL

X LEGISLATURA | X AGINTALDIA

**Serie B** **Información, control e impulso** | **Informazinoa, kontrola eta sustapena** **B Saila**

**XXV** **Proposición no de norma** | **Arauz besteko proposamena** **XXV**

Número 536a | Bilbo, 2019ko urtarrilaren 8a / Bilbao, 8 de enero de 2019 | 536a Alea

**ASUNTO:** Los hechos ocurridos en el aeropuerto de Bilbao con los buitres.

**AUTOR:** Jon Andoni Atutxa/Ekain Rico

**Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas**

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 8 de enero de 2019, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a tramite.
**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor
**Órgano Destino de Tramitación:** Sostenibilidad y Medio Natural
**Procedimiento de Tramitación:** Urgente
**Plazos:**
Presentación de enmiendas a la pnn: hora cierre registro día anterior a debatirse

**Otros acuerdos**
Ordenar la apertura del plazo de enmiendas
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
Ordenar la inclusión de la iniciativa en la próxima sesión del órgano destino de tramitación
**Regulaciones:**
Reglamento: Artículos 175 y sgts., 178 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 8 de enero de 2019.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

**A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

Jon Andoni Atutxa, portavoz del Grupo EUZKO ABERTZALEAK-Nacionalistas Vascos y Ekain Rico, Portavoz del Grupo SOCIALISTAS VASCOS, presentan la siguiente Proposición No de Norma con carácter Urgente sobre los hechos ocurridos en el aeropuerto de Bilbao con los buitres.

JUSTIFICACIÓN DE LA URGENCIA

Dado que ya existe una proposición no de norma del Grupo Euskal Herria Bildu sobre este tema, proponemos que se considere su carácter urgente para que sea debatida de forma conjunta.

**GAIA:** Bilboko aireportuan saiakaz jazotako gertakariak

**EGILEA:** Jon Andoni Atutxa/Ekain Rico

**Bideraketarako onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea**

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2019ko urtarrilaren 8an izandako bileran:

**Bideraketea:** Bideraketarako onartzea
**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Organo hartzailea:** Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordea
**Prozedurea:** Presazkoa
**Epea:**
Arauz besteko proposamenei zuzenketak aurkezteko epea: eztabaidatze-egunaren bezperan erroldea izteko orduan amaituko da
**Beste erabagi batzuk**
Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea edegiteko agintzea
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
Ekimena organo izapide-hartzailearen hurrengo batzarrean sartzeko agintzea
**Araudi oinarria:**
Araudia: 175. artikulua eta hurreng. 178 eta 92. artikuluak

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. atalean zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2019ko urtarrilaren 8an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI**

Jon Andoni Atutxa jaunak, EUZKO ABERTZALEAK-Nacionalistas Vascos taldeko taldeburuak, eta Ekain Rico jaunak, EUSKAL SOZIALISTAK taldeko taldeburuak, indarrean dagoan Araudiaren arabera, presako honako Arauz Besteko Proposamena aurkezten dabe, Bilboko aireportuan saiakaz jazotako gertakariei buruz.

PRESAKOTASUNAREN ARRAZOIKETEA

Euskal Herria Bildu taldeak gai horren inguruan aurkeztutako arauz besteko proposamena dagoanez, horregaz batera eztabaidatu daitela proposatzen dogu.

MOTIVACIÓN

En mayo y julio de 2018 se produjeron dos choques entre aeronaves y buitres en el aeropuerto de Bilbao.

Estos incidentes han ocasionado preocupación entre la ciudadanía y han generado reivindicaciones que desde los ayuntamientos del Txorierri se han trasladado ante las autoridades competentes correspondientes en aras a seguir garantizando la seguridad en el aeropuerto de Bilbao.

Como representantes de Bizkaia, consideramos que desde las Juntas Generales de Bizkaia debemos sumarnos a dichas reivindicaciones y trabajar conjuntamente para conseguir el objetivo común, que es la seguridad de la población.

Por todo ello, y teniendo en cuenta el trabajo y el seguimiento que se ha estado realizando en la última época a este respecto, desde los grupos Nacionalistas Vascos - Euzko Abertzaleak y Socialistas Vascos, se presenta la siguiente Proposición No de Norma con carácter de urgencia:

1.- Las Juntas Generales de Bizkaia instan a AENA a que realicen un estudio de situación del aeropuerto de Bilbao, donde se incluyan los movimientos que realizan los buitres avistados en el entorno del aeropuerto.

2.- Las Juntas Generales de Bizkaia instan a AENA, AESA y a las administraciones vascas y estatales para que en el ámbito competencial de cada una de ellas, colaboren, se coordinen, compartan la información departamental y se impliquen en adoptar las medidas necesarias en orden a garantizar la seguridad de la población frente a las consecuencias que puedan derivarse de posibles choques entre buitres y aviones.

3.- Las Juntas Generales de Bizkaia solicitan que se establezcan canales de comunicación ágiles entre los agentes implicados, así como un protocolo de actuación para el caso de nuevas detecciones de buitres.

4.- Las Juntas Generales de Bizkaia instan a AENA y a las administraciones competentes para que los ayuntamientos afectados por las operaciones aéreas a baja altura sean informados puntualmente por los órganos de gestión de riesgos derivados de posibles choques entre buitres y aviones.

Bilbao, 19 de diciembre de 2018

**Jon Andoni Atutxa Sainz,**
Portavoz del grupo Nacionalistas Vascos

**Ekain Rico Lezama,**
Portavoz del grupo Socialistas Vascos

ARRAZOIKETEA

2018ko maiatzean eta uztailean birritan gertatu dira hegazkinen eta saien arteko talkak Bilboko aireportuan.

Gertakariok kezkea sortu dabe herritarrengan eta aldarrikapenak ekarri ditue Txorierriko udalen aldetik, aginpidedun agintariengana jo dabe-ta Bilboko aireportuaren segurtasuna bermatzen jarraitu daiela eskatzeko.

Bizkaiko ordezkari garan aldetik, uste dogu Bizkaiko Batzar Nagusietatik bat egin behar dogula aldarrikapenokaz eta alkarregaz batera lan egin behar dogula helburu bera lortzeko, hain zuzen be herritarren segurtasuna bermatzeko.

Hori guztiori dala-ta, eta aintzat izanik gai horren inguruan aspaldiko partez egindako jarraipen-lana, Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos taldeak eta Euskal Sozialistak taldeak presako honako Arauz Besteko Proposamena aurkezten dabe:

1.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deutsie AENAri Bilboko aireportuaren kokapen-azterketea egin daiala, eta bertan agertu daitezala aireportuaren inguruan ikusitako saien mugimenduak.

2.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deutsee AENAri, AESAri eta euskal zein Estaduko administrazinoei eze, bakotxak bere aginpideen esparruan, alkarregaz batera egin daiela lan eta koordinatu daitezala bakotxak dauen informazinoagaz eta inplikatu daitezala hegazkinen eta saien artean gertatu leitekezan talken ondorioei aurre egiteko, herritarren segurtasuna bermatze aldera.

3.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten dabe ikututako eragileen arteko komunikazinorako bide egokiak ezarri daitezala, baita saiak barriro ikusten diranerako jarduera-protokoloa ezarri daitela be.

4.- Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten deutsee AENAri eta administrazino aginpidedunei egin beharrekoak egin daiezala hegazkinen eta saien artean gertatu leitekezan talken ondorenezko arriskuak kudeatu behar dabezan erakundeek informazinoa emon deien altura gitxiko hegazkin-operazinoakaitik eragindako udalei.

Bilbon, 2018ko abenduaren 19an

**Jon Andoni Atutxa Sainz,**
Euzko Abertzaleak taldeko taldeburua

**Ekain Rico Lezama,**
Euskal Sozialistak taldeko taldeburua